Ez sinkronia

Gorka Setien

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1985 Gorka Setien
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1985
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

NIK ESAN NAHI DUT ETA EZ DIZUT ESATEN
BADAGOELA EZ DAGOELA MAITATZERIK
BADENIK EDO EZ DENIK
ASUNTO GARRATZIK
FRANGO.

Zure irri zuri gorriak hazia erein zuen
eta fite sortu zen denbora;
denbora kontagarria
penaren katilu zuria
haizeak begirunez orraztutako garia
izarretik izarrera doan ikusezin haria.

egun adartsuen basoan
mina eta jolasa
bertso haizto
memoria
begi itzal
eskeintza sutsu
eta duda sorta horia
egun haizetsuen zelaiean.

irri zuri gorri zureak.

bertsoa galerazten duen
pertsonen arteko amildegia
ezin porlanez berdindu.

orainaldiaren hotzikarak jaurtitzen ditut
maitearen lepo miresgarrian
berunezko ezusteekin zapaltzen ditut
bakardade bilakatu ditezken goseak.

leher mina maite
eder eder heze lizun gazi
bihotza inoiz ez loti
  bizitzari lotua daramagun dizdira
karraxi izugarria ixurigarria
  eskuetan estututako haize gozoa
eder maite l e h e r bihotza eta to ni.

lo belar lotarako
lo luze lehunerako.
lo belarrik ez loak laztan nazan.

ez nau loak bizirik ezagutuko,
bihar, bihar triste geroa
ala alai bakardadez bustitako loa.

bakardadea euri balitz akaso
zure ile lepo kokotz azal
bustiko lituzke.

azken maitalearen keinua lehertuz
    ahoa zabal
    mihi lehor egarriz ase
            nik
  tonto zoro ero honek
malkoak aina epeldutako tantoak
miazkatuko nituzke
zure eskuek nire azken taupada xehetu arte,
        xamur

emeki

mantso

biona...

gizakumearena

arrazoiketaren eztanda gogorrak
kristala hautsi du
haizea sartzen da lehiotik
sexoaren lurrina oso bero dago
zeru zuria izan zaizkigu izarrak
eta borrokatzen da han eta hemen
poztasuna.ere akaso sari bihar.
gaur ere
zeruan izan gara
nahiz eta gero kristalak hautsi
amaren sabela bortxatu
negarra bakardadean egin
eta hilko zinatekela sentitu

errekan harrien musika tantoak orbela gaur
berriz begi hoiek
leherketa hilketa eztia odol aho hortz atseden
mesede praktiko eztia
berriz gaur mendez mende bakarrik iraun irauli
irakin bortitz latz

garratz makila egurra santu gehiegi loreak baina bere lekuan izar
izar kiñu kiñu izar izan egan harria burni egun su ur hezur muin
laban lepo arnas erabaki kemen arnas lo lo llo llo amets non zer
ezpainetan zure goxotasuna.

tantoak erortzen dira,
lurreko zulotxoak
argizari urtuz beterik daude,
odola azkarrago doa
eta bero.

BETEA
DARDARTIA
HUTSA

gogo beroz
maite ditut bihotza azkazala ardo goxoa
eta hortik gora ilargirako bidea ahal balitz
maitearen gerria eta hortzak eta ipurdia eta lepoa
eta keinua eta begi ninia eta honen ingurua eta zu
eta nere ama (sikiatren plazerrerako) eta nere aita
(despistean nabilelako) eta hogeitamazazpitik larogei
gradutara iristen diren amodio sutsuak...

hilobiraino.

edozein formen epeltasunean
pentsatzen baitut oraindik,
galkor gerta ez liteken hazizahar hortan
eta farrerik egin dezakedanaz oraindik
gaurko eta atzoko maitagarriena
bizi egin nahi dut.

atea ireki nuen behin
desiratzen nuena sar
zedin behingoz
eta une hartan bertan
heriotza urdindu egin zen.

euriak busti ninduan
eta buruz
besoz
ahoz
sexuz hitzegiteko gogoa
etorri zitzaidan.

laranjaren borobiltasun erotikoa
izan nuen esku anean,
eta euriak
euri fin bizigarriak
nire burua bustitzen jarraitzen zuen.

bainan nik ez dut oraindik heriotzarik
ezagutzen.

urak bare itsasoa leun
ontzia emeki kulunkatzen da
apar arrasto zuria ez da zauri
eta uraren zimurretan ispiluek
eguzki gazia iresten dute

uhinek amorea gainditzean
minutu zahar guztien beldur kiratsa
kanporatuz
malkoak itsaso bilakatzen dituzte

gizon berriaren esamesak
oihartzunaren altzoan tarte eta kabi,
karizia xamur batek
gizon zahar berriaren ipuina kontatzen digu
eta odola bare
zuzpertzear dagoen
itsaso maitakorraren abisu

itsasoa bare dagoenean ere
epel udan, hotzikaragarri udaberriaren atarian,
bakardadea ur zabalaren erritmoari lotzen zaio
eta gizonen begietatik zintzilikatzen da
gortina astunen moduan.

edozein maiteren masail laztan xamur goriak
ezpainez edo eskuz ferekatzean
kezkaren itsasoa lurrintzen hasten da;
denbora gatzaren kristalak bezala
dir dir eta zuri
elur eta lehorketa.

belarrietako tintilak eztiki laztantzen zizkidaten
zizkiguten haurtzaroan
eta
zizkigutenean
ez genuen plazerra sentitzen
baina bai bizi gustora plazerra
denboralditxo eterno huraxe.

llo llo esaten zion poetak hilzorian zegoen umeari;
maitasunezko ekintza izandakoa
heriotz koloreztatu bait zen.
zer zekien lizardik heriotzaz
zer dakit ba nik heriotz beltz horretaz.

pausoak azeretan eta egutegi kosmikoetan
urratsak heroismoaren aurretik
gizakume bat kalean
misterioa haren begien aterpean
eta hainbeste gera...
zenbat ate
zenbat

un amor declarado
entre la respiración y el deseo
arnasaren eta desioaren arteko
amodio nabarmena
itsasoan
gure itsasoan
eta itsasoak
azala zimur.

lo maitea lo
bizi barnea eta itxoin zan.
dar dar egiten dun
ala kolpe bat haizeratzen;
aspaldi suntsitutako irrifarraren zorra agian,
gauean kandela xut argilaria
eta maitalea alboan bero ase
obsesioaren zaztada ahantziz une batez.
esnatu zain gaua
lo maitea.

ai penak eta minak!
udaberriko eta
udazkeneko
bertso lau leun
gerorako idatziak
harek jaso ditzan
uler zezan
zergatik den trixtea
bizitzea ere batzutan.

eta amodioan garaile eta galtzailerik balego
akaso loreen kolorea amets uste behar...
haizearen arnasa
kirats fantasma batek itota balu...

maitatzen dugu eta baita heriotza tentatu,
ezbeharraren mina begietan urtutzen da;

gizakume maitatuaren mina musukatuko nuke.

edozein egunetan
begirada gozoaren atzetik
aspaldiko kateak
amets gaizto batean ikusi ditudala esanez
esnatuko banintz?

gizon bat naiz, jatorriz egazti, jendearen
modura.

hil ez nadin, hil, nahi dut bizi
eta maitasun asea maita dezaket...

esfera jira biraka dabil
ohea goxo eta geldirik
izarren azpitik.

Zorionaren piramidetan
azkazalaren arramazketan
zauritxo luxe fin gorri lehor miazkagarria.

maitasunari heldu nintzaion
horma zuriari kontra
eta so
zorionaren piramidetan.

klak eta klak eskribitzeko makinaren pauso
berriketa,
maite dudalako maite dudala marraztuz,
dudaren hautsontzian
mila zigarrotako arnas kutsatuak
haren eta honen laztan urduriaren eske.

azkazalaren arramazketan
ezintasunaren aztarna folklore gisa
aurreskua baino zaharrago milaka urtetan;
(eta ikurrina baino zer esanik ez)

hemen, ikurrin maindirearen ohe honetan
mesa notxiaren gainetik gainezka alboan,
mantak blai blai egin arte,
botilak milaka botil ustutzerako beteak.

kortxoaren epats
txaparen dominiskiku

Inpresio

Bakardadea gauza bat da
bestea inkomunikazioa
  bi gauza desberdin
      huts eta inguru.

haizeak zuloa
txistu hotsa gerta dadin
behar duen bezala
zirkuloak inguruko arnasa gogoko
eta erdian
kolore guztietako kolore bakarra
    edo ezerrez   beltz.

begiak irekitzen ditut poliki,
gaua dela jakiteak ez du garrantzirik.

aroak dira, denbora narrasti
azala latz eta hotz odola.

urruti aurkitu nahi nintzake.

han urrun, harri haietara naraman hariaren
puntan;
harria eromen penotsuaren kontra, harria oinarri.

gero kanta dezatela poetek zurezko bertsoa
mama gozoa eztarrirako erabili ondoren;

— lur epelaren baimenarekin —

eginean ekitean eskeini diezagutela pitxar
borobildua
denon egarri astunaren asegarri.

askotan esan zidaten
txikitandik akaso
denborak zuela
mingarria sendatzen
eta orain sentitzen dut
egia dela hori
atzo gerta ezina
urtutzera doala gaur.

goxotasunak gorrotoak
amodio heriotz maitasun hilak
kolpe haizeratuek
aztarren bat utzi dute...
askotan esan zidaten
txikitan ere ezetz...

Hemen

mila aldiz gogoratzen naiz
eta hamar mila aldiz entzun
miloika segunduak ez direla debalde pasatzen
baina erraza da kristaletako tantoekin
denbora luzez liluratzea.

galtzen den guztia eta ikasitakoa izango ote
zauri bat irrifarrean
harrikada sentimendura,
atzoko aztarnen hondartzan.
gelditzen den luma arin hura...

gogoratzen naiz, gordeak dauzkat miloika
segunduak
HEMEN

BLAI BLAI
ur tantoak
hainbeste urtetan aski luze hazitako
ileetako kraka irristatuz
pena darie.
euria ari zuela eta...

BLAI BLAI
karakolen mulo musua,
eskuetatik lepora dauden zentimetrotan
suizidioa ahantzemanez.
odei kargatuetako tinta tantoekin...

BLAI BLAI
lepotik heldu nuen
nire egia mozkorra itotzearren;
gero bare bare itsasoko erditze mina;
uhinen kontra jauzi ziren zakil tenteak eta BLAI
BLAI

garai zaharreko tanta berriak
lurraren kontra lehertu dira
konturatuz
ez direla alferrik pasa
debalde igaro diren milaka minutuak;
eta negar egin du
(lo)
arnasa hartzea ez baita zorakeria;
eta begiak jelatu egin zaizkio
(amets)
ingurua irestea hain baitu beharrezko.

garain zaharreko tanto urratuak
ustearekin usteltzen hasi dira,
nahi izandako gauza guztien
maitasunezko lilura goxo bortitz horrekin.

Ez hortan bukatu

ez desegin
gitarra jotzeko balio duten behatzak
    hortzekin ezin baita;
ez apurtu
lepoaren gustorako erabili daitezken
    hortz zorrotz horiek;
ez hautsi
    plazerrez okertu eta luzatzen den lepoa.

ez begirik atera
    eguzkia hor dago,
ez lehorrarazi
    mundu heze gozagarria,
ez ezbeharrera behartu
    inor inoiz,
eta ito
    azken pisuko lehiotik zintzilikatzen den
    ilusio apur gizarajoa

ASFALTOKO LURRIN

gizona ez da ezer ez du ezer
loa baizik
lo urrunaren amets lotia
gizarajoen botila huts
esku zartatsuen eskaintza
gizonak
gizon
giza on.

gizakumeak ankari lepoa jartzen dio azpian
harriak jasotzen ditu ahoarekin
hortzak hausten
baina aspalditxotik galtzear duen irrifarra
agertzen du
ez zezaten gehiago zigortu
antzekoez erdi dadin.

gizonari, heriotzaren mugetaraino maitatzen
ahaztu zitzaion aspaldi,
gizonari hegoak atera baino lehen

zerraldoa diote erosi
zioten saldu;

gizon hilzon bizon
zon ton mon...

bandera zatar odol loi ixurte
agindu hortz hozkada heriotzerako
eri gizona ezer balio gabe
merke truke urre paper hogei urte.

bizitzeko eskubidea ere eskatzen dute askok

kopeta larru animali irrifar zimur
larru jotze hats lurrin kate bukaezin
zalantza berde zemento zerrautz ala ke
ke beltz metal orduak eta orduak itorik edo gris
bai ez bai ez bai ez edo bai bai bai bai...

(ene hizkuntz urbanoan helar lili hosto egur
uztarri txekor mahasti kupel larre harresi
adar sagar zabal ezarrita)

Sentipen madarikatu aunitz
dardar bibrazio edatzailea ametsetatik desioetara
bizitza borobil bat bilakatzeko falta zaigun marra
infinitoa
minutuz minutu arnas estuetan ahantz ematen dugu
rutinaren literatura zapaltzailean.

tekno sentimendu xehetu kirastua
zorionaren preziotan saltzen dute,
gorrotoa hilotzen ixiltasun lizuna edo beldurra
ziurtasun nekagarri agertzen zaigu asfaltoan...
asekaitz dirauten bihotzengatik
beruna ixurtzen duten zakilengatik.

ai haur kabi
dizdira begi
zein goxoa
zuen eskea
zein kaxkar
gu ia beti.

(hortxe dago hor,
zer dago ordea?
—nor baten zer
irrikatua—
hiru metrotara
gurutzatzen den
instant bat,
begiak haizera
eta zuzen.
zeren posibilitatea?)

kale pobre hauetan
grisak zatika zatika
hautsa koloreztatuz
muga guztiak estaltzen ditu,
mihineko ileek ez dute jadanik
nire zakila xukatzen,
loak loa busti
eta harek lepoa okertzen du
okertzen

okertzen
okertzen
oiloa akabatu arte
luna gorritu artio.
kale pobre hauetan
harek ni nik zu zuk beste guztiak
ahaztuak
erremediorik gabe.

Optimista izateko garaia ornen da gaurkoa,
udaberria hor datorrela berriz eta...

optimismoa, potroetaraino iristen den poltsiko
batean
zintzilik daukat,
hortxe gelditzen zait
gauero urduri,
afaltzera ateratzeko lotsa balu bezala.
hortxe gelditzen zait.

optimismoa ez da pesimismoaren ahaide
baina ezagutzen dute elkar aski;
triste koloreko taberna batean biltzen dira batzutan,
bestetan, beste edozein lekutan.

zer esango dizut pesimismoaz
optimismoaz dakizuna baino.

hain da erraz eta zail
bizitzaren eromena maitatzea...

eta ez dut hotzik pasa nahi
hain da erraz.

zer esango didazu optimismoaz
pesimismoaz dakidana baino.

Orain,
bakarrik nagoela berriz
ur beroko poltsak
eta amaren berbena sendagarriak
oroimen eta kontsolamendu dira.
denborak ez ditu
sapore eta usain bereziak ezabatu,
kuttuntasuna tentagarri ere orain.

orain ere
hala ere
hemen gertatzen zaiguna triste;
triste borroka heriotzetik pasatzea;

haurrek hemen gerra edaten dute
ez maitasun ur gazi epela.

gure basoetako basauntz paranoikoak
azkengabeko ihesian dabiltza.

biziko nintzateke

borobila

gertatu da

onartuko nuke

dimensioz aldatu

du

marx eta freire unibertsoan...

...grinak

telebistara

bidaliko

ditut.

kosmogonia

agonia

kalegorria...

...ez naiz ezer baino

gehiago

i...zango

tita niozko zzuhaitzen adarpean
finkatua.

irekiko nituzke ateak eta zuloak
biziko nintzateke orduan.
zure ondoan.

LETXE GUZTIAK IRAKITEN JARTZEN DIRENEAN

(isaak lagun zarrari entzundako esaera)

guztiz ajolakabekeriaren garaia
izan daiteke gaurkoa
baina sekula ez
ez enerjiarik bagenu behintzat
hainbeste kostata gero
eten ditugun kateak
berriro lotzen hasteko denbora.
ez mesedez.

ahaztutzerik ba al dago
mila ikasgaien mila zartako isilak
zartako disimulatuak
ezer gertatuko ez balitz bezala?

izarretan idatzia zegoela
lepoa zein posturatan eraman
ez al genuen ikasi ba?
eta mingaina zenbateraino atera
istilu beharrik egon gabe?

kexuen horma hortaz?

baztertu eta berritu
berritu baztertu berezi
bakoitza berean baretu
eta segi, segi eta segi panfleto lore izerdi
eromen musu aholku samin samur
begi dizdiraren bila.

herri honi pasio alaieko obra txiki batzu
antzeztea falta zaio;

hemen
zoriak eta suerteak nolako aurpegia duen jakin
gabe
zeruak beste motako gris urdina du ageri;
asko gabiltza dirudienez harkaitz berberaren bila
eta basamortua harriz beterik ezagutu dugu
betidanik.

herri hontan
heriotzak egunero bizitzetik goizero jaiotzera
jotzen du
komunikazioaren hotsak anean ahoa ireki du azken
larritasunean.

gure aitaren etxea
defendituko dugu...
baina noren kontra?

Zenbait momentutan badirudi
burua nekatzeko garaiak
bukatu direla;
irauteko ogia eta ardoa eta kitto.

poesia papera gastatzea denez,
konsumismora jotzen dugula igarri
eta seakabo ozena oihukatu izan bagenu bezala
boligrafoak sutara jaurtikitzen ditugu.

bakarrik gaude berriz
arratoiek ere abandonatu gaituzte
ez bait dizkiegu malkoak janari ere utzi
alimenta zitezen.

malkoak e aztango soro basoetan utzi nituen
eta paperean tintaz esplikatzeko
ez nintzen gauza izan
boligrafoak nekearen txingar gorietara
boteak izan bait ziren.

  baztango paisajean
neskatoen titiak mendi
artesiagatik bista zabalean

eta lurra gorri
milaka urte lehenago
herritarren odol ixurteaz abisatuz.
    pasaian lau gorritasun gazte
    miarritzen bestea...

  metrailetak bizitzarako
  uso zuriak heriotzerako
  amorrua itzali
    ezintasuna ito
    memoria zapaldu.

baztango nekea odolak idatzi du.

herriak herria bera erasotzen dabilen
herria da
teste batek esango luke
pobrea pobrearen kontra
langilea bere buruarekiko zakur...
eta beti izan ohi da
jende xehea
xehetua bere baitan
eta iheslari
itzala egunero pertxeroan utziko lukeen izaki
hoietakoa.

ez dugu kazkezurra muinen muga
materia grisa bera baizik
sustantzia zuri eta odolarekin batera
laberinto galkor.

poesia ala jaki politikoa
zer da bietatik?

Itzaleko hitzetan
zoko hotzean lur jotzen duten esanahiek
ixil ixilik begiratu dute goibel zerua.

hitz arrunt hoietan
harridurak harresi egiten badira
emeki tinta beltzez erreko da historia

eten dadin haria
ate lehioetan txirrikituak ireki behar
kaleko doinuak egin dezala ulergarri mintzaera

Goya-ren kuadro batean
ilunaren lau izkinetan
berde hori urdin argi izpi berriak.

OINEN AZTARNA LOKATZETAN

Urteak dira haizean markatzen
bakardadean
ortzadarrari koloreak itzaldu zaizkio
  gastatzen bakardadean

  gizakumearen begietan dizdira
  zeinen bizkor
  argiñoak dira dantzan
  zeinen bizikor

miseria merke maiz nonahi
asfaltoan,
ahoak kalez kale
hilak, hotz akaso ala karraxi mutuan
oinaze zorrotza botiletatik merke maiz nonahi

  eta esango nioke
                bere urdaileruntza akaso legokeen
                  zulotik
                sartuko nintzatekeela esango nioke
                bazkatuko nintzatekeela haren zuku

eta barne muinetatik
gustora;
asea nuke orduan asekaitza
patxara onean
nire zuloa berdindua gustora hemen.

Urteak osatzeko gauza izandako segundu haiek
pasatako denbora
haragi bizian jarri dut
eta kemen
urrats lainotu
zipriztin...
malkotsu haizea azalaren gain
zait igurtzi.

irrifarraren aldatzeko mekanismo sekretua
igarri diot
oraindik zaildua izan ez den gorputzari;
ez naiz sikiera
negarra antzezten jardun

eta trixtura
kimu itsatsi
dominiskiku
odoltsu egutegia begitartean
zait ageri.

zein sinplea amodioa paper batean
klabeliñak opari
«la noche de que te hablé»
hainbat eta hainbat aldiz.

emakume batek zerua dudan jartzen zuen bitartean
besteak egunero ikusten zuela zioen.

zerua gauez kalera
kapa beltzez ateratzen denean
izarrak ikusten zaizkio bizkarrean
edo barruko aterpe prometituaren leihoak izanen.

zeru izar kuriosidade eta promesen oroitzapenei
lotuta geldituta gero,
denbora ametsaren errapetik geroa xukatzen ari
dela
leiho urrun haietaraino igotzen gara;

orduantxe
ezinezko ametsen antzera
plazerra bukatzen zaigu
ebasioa moztu
erre gustoa dastatu
ebasioa moztu
erre gustoa dastatu.

obsesioa platerean berriz ere;
eta ez noakizue zerura zihur joango zirela
esan zigutenen zerrenda segidan ezartzera, alferrik baita.

infernuko alearen bafleetatik «la polla record»

Zer ari zara bilatzen
zer bilatzen
egi librea akaso
edo gerri perfektoaren insinuazioa?

gaitezen biluts
aidean larrua
pikutara dena.

erlojuak ez du txistu egiten
gasolinak ez du azukrerik
bizi bizian sendatzen gara
bilatuz gero
gelditu gabe
aurkitzearen atzetik...
eta ez da egirik perfektoan
ez bilutsik zeruan.
hartua zegok kuidadoa lehendik.

poema bat idatzi behar nuela...
eta hara
etxeko terrazan
euria.

zurrumurru elektronikoa ote?

gaur ez da
historia ikaragarriak kontatzeko gaua,
ume bioelektroniko palkolore
hogeitalau kanaldun stereoaz erdi izatekoa akaso,
ez dakit nola esan.
eta hor kanpoan etxeko terrazan euria debalde.

gaur gauean amoreak bere zirkunstantzia balio du
osea ez dago maiteñorik maindire anean.

gaur ez dago
moztuak izan daitezke lepo odoltsuetaz mintzatzerik,

eske ez baitu inportik gainera
zertarako trajediak
xenxible jarri eta kanpoan
euria bertsotan ari bada?

gaur esate baterako
ipurdi gerri okertze perfektoko neskak
marketing erotiko eta gin-tonic mesedez.
maitearen alua lehor
drogaren aurkako manifestazioa eta
hospitalak bete bete,
desamodioaren dizdira eza begietan
marra ustel zeharkakoa aurpegietan...

eta duda izan arren,
bizitzari beste urrats baten aukera
eman edo ez eman pentsatzen arituta ere
betiko posturan egingo dugu lo.

gaur
hezetasun ilunzaleko une geldietan ahoz
gora
ikaratu gabe

patxara onean poesiak
poesiak poesiak negarrez...

poesia malkozale merkeak
nor izutu dezake ba?

OIHARTZUNAK MAILUAREKIN JOTZEN DU

ez dut politikoek negoziatutako
hizkuntzarik desira,
grafiko farmakorik,
ihintzaren ametsetan murgiltzen bainaiz sarri.

historia eta espazioa bokadilo batean iresteak
arnasa estutzen dit
maitasuna dastatzean
ez dezaket manifestapena esan
exzitazio baizik.

pizkunde ala agonia unibersidade edo hilerri
kamamilarik ez dago baratzetan;
beti bixitatzen gaituen lainoaren
orrialde zensuratuetan
hamaika hots huts larri.
exorzitzaileak beren akelarretan pozik daude
amona sukaldean umekeriak kontari
hilobak, artoaren truke,
oilasko lerdoa dirudi.

gure zuloetan oihartzun eta zarata eza
zaldien kaskoak asfaltoa jorratzen ari
bulego basco zakur sirenalari;
umeen malko eta sortzear dauden loreekin
banderak esnatu dira,
pergamino modernoetan
beldurra uniformea funzionario klasifikatzaile
astoak eliz ataritan txistulari iraultzaile
bedeinkazio sagardoa dotriña eta prenahiduzuna
edo aurreloquesea.

erroibar edo etxelarko hitzen musika ixuri
zengau batean emakume batzuren aho xamur
bero konspiratzaileetatik eta orduan...
denbora ez
gizona mutu
bulegoetako leihatilak hertsirik.

bertsoetan igarri nuen
zure goxotasuna
mendiko haize laztanen
masaileko gorrixta.

bertsoetan sumatu nuen
hizkuntza
eta mila aldiz kantatutako
amodio eskea
zure bertsoetan
euskara gizarajoa.

hitzen giroak denbora jazki
sagarrak ximel
kantaria triste
amorruaren poemak ahoa hertsi.

iruñako kaleetan tolosan ala gernikan
gure ustekabea tabernetan astintzen da
negua izotz urtua uda
eta gu atzetik
historiaz biluts.

heriotza daramagu behatzetan
  pianoa ez dago erraztunez jotzerik
poematxoak hustu egiten zaizkit
ez dut zer esan
zer egin non hasi nor ito nora joan
eta metaforak erre egiten dira.

    zipli zapla jo du
    amodioaren egileak
    penaren masailean
    los muertos no aman
  eta gu hain bizirik
zaplaztekoka kale izkinetan
  arro urduri larru gorri ezer edo zerbait
  ez ala bai gris izpiritua materiaren zuloan
  bakarti kantari malkotsu
  algara bizian gorri baina ez kolorez
  larritasunez baizik hemen asfalto soroan.

OTEIZARI